

Aberri Eguneko adierazpena

ELAren Nazio Batzordea

2012ko apirilaren 2a

ELAk Aberri Eguneko jaia baliatu nahi du bere militanteei esker ona adierazteko eta zorionak emateko herritar klaseentzako garai hain zail eta latzetan erakusten ari den adoreagatik. Krisi honetan askatasuna eta justizia soziala oinarri dituen Euskal Herri subirano batekiko konpromisoak ahalegin eta militantzia sindikal gaitza eskatzen du, izan ere, langile-klaseak historian iritsitako lorpen laboral eta sozialak mehatxupean baitaude.

Krisi honetan soldatapeko langileen esplotazioa areagotzen ari da, duela urte gutxi pentsa ezineko muturreraino. Langabezia, prekarietatea eta babes gabezia soziala dira bere adierazpiderik gogorrenak. Hamarkaden buruan metatutako lorpen laboral eta sozialak desegitearren, batetik osagai arautzaileei erasoka ari dira (lege sozialak, laboralak eta negozioazio kolektiboak), eta bestetik, errepresio gero eta handiagoa gauzatzen da oinarritzko askatasunen aurka. Areago, herrien subiranía zalantzan jartzen da kapital handiaren interesentzako oztopo bada.

Hain zuzen, Europar Batasunaren baitan porrot demokratiko izugarria ari gara bizitzen. Botere ekonomiko eta finantzarioek –kartel moduan jokatzeko dutela– politika publikoak, doikuntzak eta erreformak inposatzen dituzte, eta estatuetakoa nahiz erakunde komunitarioak agintariak ere izendatzen ari dira. Dinamika hau Grezian dramatiko da, eta beste estatu batzutan, esaterako Espainian, bide beretik doa. Ez da harritzekoa –aitzitik– modu okerrean “zorren krisia” deitzen den honek zein estaturi eragiten dien gehien: hain zuzen XX mendean erregimen diktatorialak gehien luzatu ziren herrialdeei; hauetan izan ziren trantsizio politikoko prozesuetan galarazi egin baitzen klase boteretsuek errepresio politiko eta sozialari esker lortu zituzten pribilegioak kentzeko aukera.

Halere, Eskozia eta Islandia, beren artean oso desberdinak izanagatik, egoera horrekiko kontrapuntu nabarmena ditugu. Lehen kasuan herritar askorengan gero eta handiagoa den autogobernu nahia gizarte-eredu justuago baten helburuarekin lotuta doa. Bigarrenetan, berriz, herritar mugimendu antolatu bat lortzen ari da krisiaren ardura izan zutenak auziperatzea; prozesu eratzailerik bat hasi da, eta Europako gainerako estatuetan baino era askoz demokratikoagoan eta garbiagoan erabakitzen ari dira herri subirano batek hartutako zorrari aurre nola egiten dion. Noski, ez da harritzekoa bi prozesuoi masa-hedabide nagusiek egiten dieten boikota, hauek batik bat botere ekonomiko eta finantzarioen esku baitaude. Antza, herri azpiratuek ez daukate eskubiderik “beste mundu bat posible” dela jakiteko.

Bi estatu horiekin batera, gure herrian eta beste askotan, enplegua duten eta lanik gabe dauden beharginak, pentsiodunak, desjabetzearen dauden pertsonak, migranteak edo murrizketak pairatzen ari diren herritarrak... kalera ateratzen ari dira emakume eta gizonak “salgai hutsa” izatera kondenatzen dituen politika salatzen. Gero eta jende gehiagok uste du justizia sozialak eta demokraziak batera joan behar dutela, areago orain, non bankuek, hedabide-taldeek, finantza-erakundeek eta kalifikazio-agentziek agintera iristeko aukera duten alderdi politikoak mendean hartu baitituzte, betidanik subiranía nazionalarekin lotuta izan diren botereak bezalaxe: parlamentuak, gobernuak eta auzitegiak. Hitz gutxitan, estatu-kolpe bat bizi dugu, botere-harremanak oligarkien aldera lerratzen ari dira. Honen adibide da, esaterako, joan zen udan PSOEak eta PPK bultzatutako erreforma konstituzionala, zeinaren arabera espainiar estatuak bere oinarritzko legean defizit publikoa izateko aukera mugatu egin baitzuen, helburu bakarrarekin, finantza-merkatu delako horiek asetzea, horrela herritarren beharrianak baztertuagatik.

Iazko Aberri Egunean hona erreforma eta murrizketa gogorak bizi izan ditugu, eta hauek langile-klasea ahuldu eta pobretzea besterik ez dute eragin. Joan den ekainean negozioazio kolektiboaren erreforma bat onartu zen, eta bere helburua hain zuzen txirotzea da, hitzarmenak zentralizatuz. Espero bezala, aldaketa haren ondorioz hainbat hitzarmen estatal negoziatu da (metalgintza, eraikuntza, merkataritza...), non ezartzen den esparru autonomiko eta probintzialetan zein gai negoziatu daitezkeen, eta zein ez. Hau lan-munduen kalterako da, baina gainera langileen autonomia kolektiboari erasaten dio, murriztuta geratzen baita beren borroka sindikaleko esparru eta edukia erabakitzeko eskubidea. Halaber, erreformari esker bi sindikatu estatal nagusiak Euskal Herrikan kanpo duten ezarpenaz baliatu daitezke gure herrian dagokien ordezkaritza mailak uzten ez diena erabakitzeko. Horrela, UGTk eta CCOOk nortasun sindikal baztertzailerik erakusten dute, eta ez dira gauza errespetatzeko euskal langileek beste sindikatu batzuekiko adierazten duten atxikipen

handia.

Dinamika baztertzaila honi beste bat gehitu behar zaio, Eusko Legebiltzarrak hartutako erabaki batek ekarriko duena, izan ere, ganbera horrek Lan Harremanen Kontseilua osatzeko eta bertan erabakiak hartzeko modua aldatu baitu. Erreforma hau lan-harremanen ordezkaritza-printzipioaren aurkakoa da, zeinak alde bakoitzeko gehiengoa (sindikala eta patronala) eskatzen baitu edozein akordiotarako; gainera, parte hartzen duten sindikatuei aukera emango die ELAri dagozkion postuak bereganatzeko; horrela erakunde honetan gure parte hartzea eteteko erabakiari indar guztia kentzen diote.

Hain zuzen, ELAk salatu egin behar du EAJk erreforma politika hauek nola lagundu dituen: Negoziazio kolektiboaren erreformari dagokionez, bere abstentzioarekin Espainiako Korteetan onar zedin posible egin zuen (Zapateroren gobernuak egindako beste erreforma batzuekin bezalaxe), eta LHKren erreforman, Legebiltzarrean aldeko botoa eman zuen. Erabakiok ulertzeko zergati bakarra Confebask ez haserretzeko borondatea izan daiteke. Eta dirudienez, alderdi honek euskal herritarrentzat eskatzen duen izateko eta erabakitzeko eskubidean ez dezakete parterik izan langileek eta hauen erakundeek.

Mariano Rajoyren gobernuak dekretuz eman duen azken erreforma laboralak, aurrekoek bezala, kontratazioa prekarizatzen du, lan-ibilbideak malgutzen ditu eta kaleratzeko zergatiak ugaltzearekin batera, merkatu egiten du. Honetaz gainera, erreformak negoziazio kolektiboaren egitura goitik behera aldatzen du. Aurrerantzean hitzarmenak ez dira alde bientzat, langile eta ugazabentzat, maila berean bete beharrekoak izango, azken hauei erraztasun guztiak ematen baitzaizkie hitzarmenetako edukiak ez aplikatzeko. Neurrian helburua begibistakoa da: krisia dagoeneko enplegu-erregulazio latz bat egiteko baliatu da (eta ziurrenik areagotu egingo da); orain, berriz, soldatei ekin behar zaie, bai zuzenean, bai lan-baldintzak goitik behera aldatuz. Beraz, erreforma neoliberal eta autoritario bat dugu hau.

Erreformekin batera, aurrekontu publikoen murrizketa ere eskubideen kontrako agenda sozioekonomikoan dago. Duela hainbat urte zerbitzu publikoak modu planifikatuan eraisten ari dira, zerbitzuen kantitate eta kalitateari, eta horrenbestez, enpleguari eta lan-baldintzei dagokienez ere. Azken urtean aipatu beharrekoak: Zapaterok Europaren aurrean joan den udan hartu zituen defizit publikoarekiko konpromisoak; abenduan Rajoyk eman zuen dekretua, edota martxoaren 30eko Aurrekontu legea, 35.000 milioi euroko murrizketa ezarriko duena; hau, duela gutxi Europako Banku Zentralak bankuen esku bilioi bete euro jarri duelarik.

Gogoratzeko modukoa da, bestalde, krisia eta murrizketak baliatzen ari direla ere mapa autonomikoa berzentralizatzeko eta homogeneizazio administratiboa gauzatzeko, aurrekontuen tutela eta zaintza medio. ELAk hau gure autogobernuari egindako onartu ezineko eraso gisa ikusten du.

Gurean, aldundiek ere berdintsu jokatu dute, eta Gasteizko eta Iruñeko gobernuek hirugarren urtez aurrekontuak murriztu dituzte. Gastu publikoaren murrizketa hauek guztiok krisia areagotzen dute, langabezia eta babes gabezia sozial handiagoa dakarte. Diru-sarrerak gehitzeari uko egiteko erabaki dogmatikoak (horretarako azken urteetako zerga-erreformak berrikusi edota iruzurraren jazarpenari ekin beharko litzaioke) politikarik bidegabeen eta antisozialenari eustea esan nahi du. Gastu publikoa murriztean krisiaren zama guztia klase xeheei bizkarreratzen zaie, batik bat gizarte-gastuaren premia handiena duten horiei.

- o - 0 - o -

Langile-klasearentzako egoera aski larria da, baina Euskal Herrian badugu pozteko arrazoirik, ETAren bortizkeriarik gabeko aroan sartu baikara. Erakunde honek borroka armatuari behin betiko uzteko erabakia albiste ezin hobea da. Erabaki honen ondoren beste batzuk etorri beharko lirateke, Aieteko adierazpenak bigarren puntuan aipatzen duen moduan: gobernuari eskatzen zaie “gatazka armatuaren ondorioez soilik aritzeko elkarriketak zabaltzeko”. Haatik, espainiar Gobernuak ez dauka, antza, egoera berri hau kudeatzeko asmorik; hau ELAren iritziz ezin da onartu. Rajoyren gobernuak erabaki hura onetsi eta normalizazio politikorako prozesu ordenatu bat ahalbidetu beharko luke.

Horrenbestez, ez da ulertzekoa otsailaren 21ean Diputatuen Kongresuan EAJk, UPNk, CiUk, PPK eta PSOEek sinatu zuten akordioa, ETAren amaieraren kudeaketari buruzkoa. Besteak beste, Espainiako gobernuari dei egiten zaio legedia zorrotz bete dezan, non eta lege horiek “itun antiterrorista”ren garaian egin ziren gehiegikeria legal, juridiko, politiko, polizial eta judizialek oso kutsatuta dauden arren.

ELAk uste du orain giza-eskubideen esparruan urrats irmoak egin behar direla, batik bat presoan eskubideei dagokienez, baita biktimei buruzkoak ere. ELAk arbuia egiten du joan den ostegunetz Espainiako Auzitegi Konstituzionalak hartutako erabakia, Parot izeneko doktrinari eustea erabaki baitu, neurri honen aurkako helegitea sartu zuten euskal preso gehienek kasuan. Militantzia politiko hutsaren ondorioz espetxeratu

zituzten pertsonak askatu egin behar dituzte, besteak beste Rafa Diez LABeko idazkari nagusi ohia. Horrelako urratsek eta beste batzuk gure herrian zauri larriak utzi dituen gatazkari jite gizatiarragoa emateko balio beharko lukete.

Atzera gabeko urratsak egin behar dira ere eskubide demokratikoei dagokienez, bortizkeriaren aitzakiaz larri urratu baitituzte. Urteotan legez kanpo jarri dituzten erakunde politiko eta sozialak legalizatu behar dira. Halaber, eztabaida politikoaren kriminalizazioa ere amaitu beharrekoa da. Iritzi desberdinak daude gure herriak izan behar duen barnerako zein kanporako erakuntzari buruz. Eta erabat zilegi da egungo estatus politikoa aldatzeko indar politiko eta sozialak biltzea. Hain zuzen, estatus horrek ELA ez du inondik ere asebetetzen.

Estatus horrekiko, beharrezkoa da gure herriaren burujabetzaren aldeko aldarrikapenak errealista eta sinesgarriak izatea. Krisi eta murrizketa egoera hau abagune ona dugu erakusteko, baita esparru instituzionaletik ere, herri honek ez duela espainiar estatuaren azpisistema izan nahi. Esaterako, Mariano Rajoyk gidatzen dituen doikuntza-politikak ikusirik, Hego Euskal Herrian erabaki liteke autonomia-erkidego, diputazio eta udal guztiei exijituko zaien obediencia uko egitea. ELAren ustez, burujabetzak ez du etorkizunik izango baldin eta orainaldian adierazpide subiranorik ez badago. Horregatik, nahiko genuke azken greba orokorrak islatu duen gizarte-justizia gogo biziak euskal klase politikoan oihartzuna izatea, ekonomia behingoz politikaren menpe eta politika, interes orokorraren esanetara jartzeko eskari gisa. Iazko Aberri Egunez esan genuen politikak itxuraz bere buruak fama nola galtzen duen txalotzen zuela. Bada, gure ustez benetan kreditua emango lioke politikari, oro har, eta independentismoari, bereziki, estatuaren aurreko errebeldia edo desobediencia ekintza batek, langile-klasearen aurka egiten dituen gehiegikeriak medio. Gure iritziz, autogobernuak batik bat klase xeheak defenditzeko izan behar du baliagarri. Halaxe ulertu dute Islandian, eta hala izan beharko luke, oraintxe bertatik, Euskal Herrian.

Zoritxarrez, Euskal Herrian hasita dauden prozesu desberdinek eskatzen dituzten aliantzei buruz ez da gogoeta partekaturik egiten. Eta gauza bat begibistakoa da: prozesu eta borroka bakoitza (giza-eskubideak, demokrazia, burujabeza, gizarte-gatazka...) desberdina da, izatez, helburuei eta denborei dagokienez... horrenbestez, eskatzen duten aliantzetan ere hala beharko luke. Hain zuzen, hauteskundeetako lehia alderdikoak eztabaida politikoa eta aliantza-politikak nola kutsatzen dituen zailtasun handi bat euskal erakundeentzat. Batik bat esparru abertzalean, amairik ez duen hauteskundeetako borroka hori, berez polarizatzailea dena, oso intolerantea izan ohi da identitate politiko eta sindikal desberdinekiko, esaterako ELAren identitatearekiko.

Bat egitearen erreferentziak, edo hobeto, bat egite desberdinen erreferentziak, garrantzi handiegia du herri eta langile-klase gisa ditugun erronkekiko. ELA sindikatu bat da, sindikatu bat besterik ez, eta konpromisoa du subiraniarekiko, demokraziarekiko eta giza-eskubideekiko. Sindikatu den aldetik, bere aliantzak definitzeko ardura dagokio, baita lan-munduan duen ezarpenak emandako zilegitasuna medio egin beharreko ibilbidea erabakitzeko ere. Hori dela-eta, joan den ekainean mendeurrenako adierazpenean esan genuen legez, “ELAk deitoratu eta arbuiatu egiten ditu sarri egiten diren batasunerako deiak, lan-munduaren errealitate gatazkatsua ahazten duen lañotasunetik botatzen baitira, edota are mundu sindikala beste interes-ekonomiko edo politiko- batzuren menpe jartzetik, langileenak ez diren interesak. ELArentzat, lan munduaren helburu eta nahiak ez dira, eta ezin dira izan, esparru sindikaletik at erabakitzeko kontu instrumentalak”.

Erakunde abertzale batean biztanleria langile plural bat antolatzea da ELAk eraikuntza nazionalerako egiten duen ekarpenik berezietakoa. Eta gure ustez krisi sistemiko une hau garai egokia izan liteke, baita lan-munduan ere, elkartasuna egunero eraikitzeko, lantoki bakoitzetik abiatuta. Erronka honetxeri egin nahi dio aurre ELAk Aberri Egunez, eta hori da bere konpromisoa. Horregatik, ELAk bere militanteei dei egiten die mobilizazioari, borroka sindikalari eta lantoki bakoitzean antolatzeko lantegiari eutsi diezaiozten.

Gora Euskal Herria askatuta!

Gora munduko langileria!